

EUSKO JAURLARITZAREN POLITIKA NEOLIBERALEN AURKA EGIN

EAJ-PSE gobernu-itunaren balorazioa

2016ko abenduaren 19a



0-SARRERA

ELAk “Eusko Jaurlaritzaren 2012-2016 bitarteko ekintzaren balorazioa eta hurrengo legislaturarako proposamenak” izeneko agiria plazaratu zuen joan den irailaren 8an, hil bereko 25ean izan ziren Eusko Legebiltzarrerako hauteskundeen aurretik. Agiria hauteskundeetan parte hartu zuten alderdi politikoei igorri zitzaien.

Ordutik hona hiru hilabete igaro dira, eta dagoeneko Eusko Jaurlaritza berria osatu dute EAJk eta PSE-EEK. Agiri honetan ELAk bi indar politiko horien arteko Gobernu Ituna juzkatuko du.

I- EAJ-PSE GOBERNU ITUNAREN BALORAZIOA

Bi alderdien artean hitzartu duten dokumentua oso lausoa da. Bere xedea areago da propaganda egitea eta hitz ederrez janzea; ez dauka mamirik eta zehaztasunik, izenburutik beretik hasita: “*Enplegu gehiago eta hobe, gizarte oreka gehiago, elkarbizitza gehiago eta Autogobernu gehiago eta hobe dituen Euskadi eraikitze zutabeak*”. Izenburu hau EITB taldeko hedabideetan behin eta berriz errepikatu dute, akordioak helburu horiek lortzeko neurriak jaso dituela sinestarazteko. Baina horrek ez dauka zerikusirik errealitatearekin.

Gauza bera gertatzen da helburu hutsak diren beste erreferentziekin, esaterako langabezia tasa %10etik behera uzteko asmoa edota pobrezia %20 murriztekoa. Itunean ez dago horretara iristeko erabaki konkreturik. Haatik, datu horiek baliatzen dira etengabe gobernuaren propaganda egiteko.

Azken urteetan aplikatu izan diren politika neoliberalen jarraipena da akordioa, nabarmen. Hau ez da harriztekoa, Urkulluren gobernuak Patxi Lopezen politikari eutsi baitzion, eta azken urteetan bi alderdien artean aurrekontuei buruz eta Aldundietan itunak itxi dituzten heinean.

Hauek dira punturik nabarmenenak:

1. Zerga-erreforma soziala baztertu eta Rajoyk ezartzen duen defizit publikoa ontzat ematen da. Ondorioz aplikatuko den aurrekontu-politikak estaldura sozialari dagokionez Europako azken postuetan kokatuko gaitu.

a) Ez dago konpromisorik zerga-politika aldatzeko

EAEko zerga-politika Foru Aldundiek kudeatzen dute, baina hauek Eusko Jaurlaritzarekin Zerga Koordinazio Organoan hitzartuta. Gogoratu beharra dago zerga-politikan soldatapeko ez diren errentetan iruzur fiskala oso handia dela, eta gainera legez zergapetzea ere arina dela. Horregatik, presio fiskala europar batez besteko mailatik askoz beherago dago (zehazki urtean 5.900 milioi euro gutxiago). Esparru honetan ez dago parte hartze sindikal eta sozialerako aukera bat ere, baina aldiz patronalaren iritzia aintzat hartzen da.

Itunean fiskalitateari buruzko konpromiso zehatz bakarra jaso da: *“Edozein zerga aldaketa onartu aurretik zerga sistemari buruzko osoko bilkura monografiko bat”* egitea.

Gainera, zerga-politikan ez dira PFEZ eta Sozietateen gaineko Zerga aipatu ere egiten. Aipamen orokor bat besterik ez dago: *“Hazkundearen eta elkartasunaren mesederako zerga eta finantza politika bat sustatzea; zerga koordinazioko organotik, jarduera ekonomikoa, berrikuntza eta enplegua pizgarritz hornitzeko behar den zerga araudia eguneratzea, batetik, eta gizarte politiken eta oinarrizko zerbitzu publikoen sostengua, bestetik, bultzatuaz”*; haatik, abiapuntu honek kapitalari zergak jaisteko zein kontrakoa erabakitzeke aukera ematen du.

Ez da onargarria itunak alde batera uztea fiskalitatean gertatzen denari buruzko diagnostikoa. Betiere, errenta altuen, kapitalen eta enpresen mesedetan jarraitu nahi dute lanean, hauek gero eta zerga gutxiago ordaintzen dutelarik. Aski da aipatzea Sozietateen gaineko Zergarekin zer gertatzen den: aurten 1.100 milioi euro ere ez da bilduko, hau da, 2007an baino ia 1.000 milioi gutxiago (orduan 2.037 milioi euro bildu zen EAEn).

b) Jaurlaritzak baztertu egin du aurrekontu-politika berak erabakitzeke aukera

Akordioak dioenez, *“Eusko Jaurlaritzaren (...) kudeaketa ekonomikoak zorroztasun eta erantzukizun printzipioari jarraitu behar dio”*. Horretarako, aipatzen da *“finantzen saneamendua eta aurrekontu orekaren helburuekiko konpromisoa mantendu”* behar dela. Zehatzago, Eusko Jaurlaritza berriak agintzen du *“Euskadiri dagokion defizit publikoaren helburua mantentzeko eta euskal herri-zor maila egonkortzeko konpromisoa, Europar Batasunak ezarri eta Estatuaren egonkortasun planean jaso diren helburuen arabera”*. Beraz, baztertu egiten du aurrekontu-politika berak erabakitzeke aukera, eta urtero Rajoyk erabakitzen duenari men egingo dio.

Honi dagokionez, salatu beharra dago zer nolako antzezpen bitxia egin duten Pedro Azpiazu Eusko Jaurlaritzako Ogasun sailburuak eta Cristobal Montoro Ogasun ministroak: “akordio” bat taularatu dute, zeinaren arabera Eusko Jaurlaritzak ontzat ematen duen Rajoyren Gobernuak gainontzeko autonomia-erkidegoei 2016 eta 2017rako ezarri dien defizit publiko muga (BPGaren %0,6 eta %0,7, hurrenez hurren). Honek ondo asko erakusten du espainiar Estatuarekin izan litekeen aldebikotasuna bere nahiari men egitea dela, besterik ez, akordio itxura emanagatik ere.

c) Aurrekontu-politikak bere horretan

Azken aldian izan den moduan aurrekontuak murriztaileak izango dira. Zerga-politika aldatu ez eta Rajoyk ezartzen duen defizit publiko muga aintzat hartuta Eusko Jaurlaritzaren aurrekontua azken urteetako antzekoa izango da: Europar azken postuetan kokatuko gaituzte Osasunean, Hezkuntzan... Halaber, gizarte-prestazioetan azken urteetan ezarritako murrizketak ez dira bertan behera geratuko:

- ✓ Osasunean edo Hezkuntzan testuak ez du konpromisorik jasotzen aurrekontuei dagokienez. Nolabait zehazten den puntu bakarra Hezkuntzako beken da; beronetan esaten da urtero *“55 milioi euro”* bideratuko direla. Kontua da kopuru berbera dagoela jasota Eusko Jaurlaritzaren 2016ko Beka Planean; hortaz, ez dago inolako aurrerapausorik.
- ✓ Gogoratu beharrekoa da Osasunera edo Hezkuntzara bideratzen diren baliabide ekonomikoetan batez besteko europar mailara iristeko Eusko Jaurlaritzaren aurrekontua Hezkuntzan 770 milioi gehitu beharko litzateke, eta Osasunean 1.540 milioi.
- ✓ Patxi Lopezen gobernuak aurrekontuen bidez prestazio ekonomiko guztien zenbatekoa %7 murriztu zuen, baita DBEarena ere. Gainera, prestaziorik gabe utzi zituen hainbat kolektibo, bera jasotzeko eskakizunak zorrotzu egin baitzituen (esaterako, erroldatuta egon beharreko epealdia urtebetetik hiru urtera luzatuta). Urkulluren gobernuak murrizketa hauek guztiak mantendu egin zituen, eta gainera Lanbidek DBE kudeatzerakoan irizpide are gogorragoak aplikatu ditu, prestazioak jasotzen dituztenen eskubideak urratuaz. Gobernu itunak honetaz ez du ezer esaten; ondorioz, murrizketa horiek denek iraun egingo dute.
- ✓ Lanbide erreformatu eta modernizatu egingo dela iragartzen da, baina zehaztasunik gabe. Ohiko diskurtso hutsala ematen da aditzera: *“Enplegu zerbitzu publikoa, Lanbide, berritu eta modernizatzea, zailtasun handienak dituzten gizataldeei enplegu bilaketan laguntzeari eta lan munduratzeko ibilbide indibidualizatuak marrazteari lehentasuna emanik lan merkaturako orientazio, prestakuntza eta txertatze eginkizunak indartu ahal izateko tresnak emanaz; berrantolaketa horretan, zerbitzu sozialekiko elkarlanari ekingo zaio izaera sozialeko prestazio ekonomikoak ebaluatu eta kudeatzeko”*. Enplegu eskumenaren transferentziak eta Lanbideren sorrerak izan duten porrota aitortzeko modu bitxia da hori; Lanbidek gizarte-zerbitzuen esku zegoen DBEaren kudeaketa bere gain hartu zuen prestazioetan zegoen iruzurra amaiarazteko aitzakiarekin. Ikusteko dago benetan zer egiteko asmoa duten, azken lau urteotan eremu honetako zerbitzu publikoak pribatizatzeko hainbat saio izan baita.

2. Enplegua sortzea baztertu eta prekaritatearen hedapena babesten da

Itunak ez du enplegua sortzeko erabakirik jasotzen (ez du konpromisorik hartzen gobernu-eremuetan suntsitu diren lanpostuak berreskuratzeko, ezta enplegu berriak sor ditzaketen neurri konkretuak aipatzen ere). Aipamen orokorrak egiten dira, adibidez, *“2017ko lehen urte-erdian Enplegurako eta Ekonomia Berraktibatzeako Esparru Programa bat onartzea, legealdi honen amaierarako langabezia tasak %10etik behera jaisteko helburuarekin”*. Horrek ez du inola ere azaltzen enplegua nola sortuko den. Hots, hitz hutsalak dira.

Hain zuzen deigarria da itunean “prekaritate” hitza behin ere ez agertzea. Areago, ez da aldi baterako enplegua edo lanaldi partzialekoa ere aipatzen. Ezta langile pobreen fenomenoak, gero eta hedatuagoa, ere. Adar jotzea da hau, baina ulergarria, kontutan

izanik gobernuaren lehentasuna aurrekontu doikuntza eta enpresen interesak direla; enpresario-klaseak bere etekinak hobetzeko prekaritatea hedatzen du eta enplegua gero eta gehiago malguagotu.

Ildo horrekin bat, agirian LEPen aipamen generiko bat egiten du, baina ez du esaten Jaurlaritzaren beraren plantillari egonkortasuna emango zaionik, aldi baterako eta bitarteko lanpostu tasak markak hausten ari direlarik.

“Basque Country 4.0” izeneko industrializazio plan estrategikoaz ere ez da ia daturik ematen; esaten dena da industriak BPGan duen zatia %25era iritsi behar dela. Izan ere, errepikatu egiten dira kontu batzuk, esaterako laguntza publikoak ematea, enpresen tamaina handitzea, atzerriko inbertsioak erakartzea, lurzoru publikoa merke eskaintzea, I+G+b eta prestakuntza sustatzea, etab.

Halere, oso datu eta informazio urria ematen da, eta agertzen dena ere ez da zehazten. Horrela, guztia da asmo ona, baina esandako ia ezer ez da loteslea. Ezarritako helburuak zenbateraino bete diren neurtzeko modurik ere ez dago.

3. Elkarrizketa sozial hutsala, baina finantzatua

Begibistakoa denean aplikatzen diren politikak seko neoliberalak direla, argi dago “elkarrizketa sozial” delakoaren eginkizun bakarra politika horiek laguntzea dela. Uler daiteke, nolanahi ere, gobernu orok kontsentsu itxura eman nahi izatea gizarteko gehiengoari kalte egiten dion politikari. Horregatik, EAJren eta PSE-EEren arteko Itunak bat ere mamirik ez duten mahai horiek iraunarazi nahi ditu, eta areago, *“instituzionalizatu”*, finantzaketa publikoa emate aldera.

Gobernu itunak gai honi buruzko atal bat jaso du, eta bertan honakoa agintzen da: *“Elkarrizketa soziala eta langileek enpresetan parte hartzea bultzatzea, helburu horretara bideratutako diru laguntzen eta zerga-pizgarrien programak indartuaz”*.

Jaurlaritzak, patronalak, CCOO eta UGTk (EAEko hirugarren eta laugarren sindikatua) uztailaren 22an sinatu zuten akordioaren harira, gobernu-itunak elkarrizketa soziala *“instituzionalizatzeko”* urratsak egitea aipatzen du, babes ekonomiko hori zuritu ahal izateko. Horretarako esaten du *“gizarte-eragileen parte-hartze instituzionala garatzeko organo iraunkor bat sortuko”* dela, *“Eusko Jaurlaritzaren eta ordezkaritza zabalena duten sindikatu eta enpresaburu antolakundeetatik hartan instituzionalki parte hartu nahi dutela adierazten dutenen ordezkariak osatua”*. Beraz, sindikatu nagusiek ez dutela parte hartuko aurreikusi dute.

ELAk salatu du gobernuak diru publikoz ordaintzea mugimendu sindikala otzantzeko operazioa, eta Confebaski finantzazioa ematea patronalak gizarte-eredu justu eta solidario baten aurkako lobby lanak egin ahal ditzan.

4. Klima aldaketa eragiten duen eredu jasangaitzari eusten diote

Gobernu itunak iraunkorretik ezer ez duen euskal eredu ekonomikoa begi onez ikusten du, eta baztertu egiten du ekonomiaren eraldatze ekologiko eta sozialaren aldeko postura.

Agiria erabat zentzugabea da; esaterako, “*Hazkunde iraunkorra*” izenburu harranditsua duen atalean:

- ✓ Berariaz aipatzen du Abiadura Handiko Trenaren aldeko apustua. Gaur oraindik lan faraoniko honen aldeko jarrerari eustea, kostu onartezina eta ingurumeneko kalte larria dakarrelarik, eta onura sozialik ez, goraipatzen duen “*eredu iraunkor*” horren aurka doa.
- ✓ Jaurlaritzaren energia-estrategiari buruz ez da ezer esaten (hau beste atal batean dago jasota); estrategia horren oinarria energia-iturri fosilak dira (petrolio, gasa, ziklo konbinatuak...), eta honetan ere ez da inolako aldaketarik proposatzen.

5. Euskara, bigarren mailan

Diskurtso aldetik EAJren eta PSEren arteko ituna hanka-puntetan dabil euskararen inguruan, eta hizkuntzari ez zaio mesederik egiten. Esaterako, agirian honakoa aipatzen da: “*Euskara Euskadiko berezko hizkuntza da, ez da bakarra, baina guk bakarrik ezagutzen dugu. Euskara Euskadikoa den beste hizkuntzarekin bizi da: Gaztelania. Hizkuntzak ez dira baztertzailleak, baizik eta dibertsitate, aniztasun eta integrazioaren froga. Bizikidetzak hori hobetzeko beharrekiko ados gaude, hori bidezkoagoa izan dadin, integratzaileagoa eta orekatuagoa gizarte kohesio handiagoko horizontean*”. Honelako esaldiekin edozein posizio defendi daiteke. Agerikoa da, ordea, ez dutela balio euskarak gaztelaniarekiko duen diskriminazio egoera nabaria zuzentzeko politikarik garatzeko.

6. Emakumeak, zeharo ahaztuak

Eusko Jaurlaritzaren politikek desberdintasun sozialak areagotzen dituzte. Adibidez, hainbat eskubide ukatzeak -etxebizitza, menpekotasun egoeren estaldura edota doako haur-hezkuntza- eragiten du azkenean emakumeek beren gain hartzen dituztela zerbitzu publikoak jasotzeko aukerarik ez duten pertsonen zaintza lanak. Osasungintza, hezkuntza eta gizarte-zerbitzuen moduko zerbitzu publikoen gainbeherak eragin berbera du.

Gauza bat dela edo bestea dela eta gero eta enplegu prekarioagoa ezartzen ari denez, emakumeak egoera okerragoan daude, hala enplegu ordainduan, nola etxeko eremuan.

Gauza bera esan daiteke gizarte-prestazioak murrizteko politikaz. Ez da kasualitatea pobrezia tasarik handiena guraso bakarreko etxeetan gertatzea (gehienak emakumeak direlarik).

Gobernu itunean ez dago politika hauen guztien genero irakurketarik. Egoera ikusirik, esan dezakegu emakumeak erabat ahaztu dituztela itun honetan.

7. Akordiorik ez “euskal estatutu hitzarmena eguneratzea” delakoaz

Marko juridiko-politikoari buruz EAJk eta PSEk ustez duten desadostasunak ez du eragotzi gobernu akordioa. Argi dago euskal estatutu-hitzarmena eguneratzea ez dela lehentasuna ituna sinatu duten bi alderdietako batentzat ere.

Eguneratze hori egiteko edukirik edo data jakinik ez aipatzearekin batera, deigarria da akordioak bi alderdiei askatasun osoa ematea, izan ere, hau esaten baitute: *“Akordio hau izenpetzen dugun alderdi politikook elkarri askatasuna aitortzen diogu batzorde txostengile horretan autogobernuaren arloan bakoitzak bere ideiak eta asmoak aldezteko”*.

Gainera, marko juridikoaren baitako prozedura errespetatzeko konpromisoa hartzen da: Akordioa Eusko Legebiltzarrean, gero Madrilekin negoziatu eta akordioari buruz herritarrei erreferendum bidez galdetzea. Inork ez du sinesten halakorik izango denik, espainiar gobernuaren irrika berzentralizatzailea (inboluzio betean dagoena) eta errepresiboa ikusirik. Zinez kontu handiz hautatu dituzte hitzak, baina esanahia argia da: Onartu egiten da edozein aldaketari estatuak betoa ezar diezaiokeela, eta erabat baztertzen da konfrontazio demokratikoa gure herriari erabakitzeke eskubidea beti ukatzen diotenekin.

Ziurrenik legegintzaldi hau ere alferrik joango da, eta epeak kalkulatu dira azken honetan gertatu dena errepika dadin.

II- ONDORIOAK

EAJren eta PSEren arteko gobernu-itunak azken urteetako politika neoliberalen jarraipena dakar. Itunetik honako ondorioak atera ditugu:

- ✓ Baztertu egiten da zerga-erreforma soziala egitea, eta onartu Rajoyk inposatzen duen defizit publiko muga. Horrela derrigorrezko bihurtzen da estaldura sozialetan Europako azken postuetan kokatzen gaituen aurrekontu-politika.
- ✓ Babesa ematen die enpresarioei, beren asmoa etekinak hobetzeko prekaritatea eta lan-malgutasuna hedatzea delarik. Enplegua sortzeko neurririk ez da aipatzen, eta hainbat kontzeptu agertu ere ez dira egiten, esaterako prekaritatea, aldi baterako enplegua, lanaldi partzialeko enplegua edota langile pobreak.
- ✓ Proposatzen duen elkarriketa soziala hutsala da, baina hau finantzatzeko prest dago. Eusko Jaurlaritzak mamirik gabeko mahaia sortuko ditu, eta hauek finantzazio publikoz olioztatuko dira, uztailaren 22an Jaurlaritzak, patronalak, CCOO eta UGTk (gutxiengo sindikalak) sinatu zuten akordioaren baitan.
- ✓ Begi onez ikusten dute inola ere iraunkorra ez den eredu ekonomikoa, eta baztertu egiten da ekonomiaren eraldatze ekologiko eta sozialari ekin beharra.
- ✓ Euskarak gaztelaniarekiko jasaten duen diskriminazio egoera larria zuzentzeko ez da politikarik aurreikusten. Euskara bigarren planoan geratzen da.

- ✓ Murrizteko eta eskubide sozialak ukatzeko politikek kalte berezia eragiten diete emakumeei; hauek dira, izan ere, ituneko ahaztuak.
- ✓ Marko juridiko-politikoari dagokionez EAJren eta PSEren artean ustez dagoen desadostasunak ez du eragotzi gobernu akordioa. Sinatzaileek espero dute Estatuarekiko aldebiko harremana izango dela, baina halakorik ez dago. Zehaztasun ezak pentsarazten digu legeingintzaldi hau ere alferrik galduko dela.

Lan ildo hau konfirmatuz gero, beste lau urtez politika neoliberalak pairatzeko arriskua daukagu. Horregatik, ELAk

- ✓ Aplikatzen diren politikak errotik aldatzeko mobilizazio soziala bultzatuko du, joan den irailaren 8ko agirian jasotako eskariak bete daitezela aldarrikatzeko.
- ✓ Berriro dio beharrezkoa dela eztabaida politiko eta sozialean ezkerreko indarrek lehentasuna ematea eskubide sozial, laboral, ekologiko, etabarri. Agerian geratu behar du gutxiengo baten mesedetan biztanleriaren pobretze orokorra eragiten ari diren politikek badutela benetako alternatiba, baita zinezko oposizioa ere.
- ✓ Pedagogia politikoa behar da ikus dadin alternatibak egingarriak direla. Halaber, orain EAJk eta PSE-EEK gorpuzten duten euskal neoliberalismoari oposizio politikoa egiteko borondate argia ezinbestekoa da. Alderdi biok, beharrezkoa denean, PPren babesa ere izango dute, politika neoliberalaren ardatz nagusiei buruz bat baitatoz.